

DANI BLANCO



Pello Zubiria Kamino

◆ ARGIAKO KAZETARIA

Santi Auzmendi hil dela

ERRAZEGI AHAZTEN DIRA gauzak. Guk ez daukagu ahazteko Santi Auzmendi. Maiatzaren 22an hil zen, kasik bezpera arte kaleetan barrena lasterka zebilen 73 urteko jostun lazkaotar donostiartua. *Jostun* diogu berak bere buruari hala deitzen ziolako, “Auzmendi. Sastre”, baina ez zetorkion handiegi *moda-sortzaile*. Zenbait iritzi eta bizitzako pasarte kontatu zizkion Amets Arzallusi 2006an. Baina euskal prentsa 1970eko hamarkadan ezagutu duenak aspalditik daki Auzmendiren berri. *Zeruko Argiaren* publizitate haiek (*Donostiako esti-*

katu. 1980an langileen esku geratu zen ordura arte kaputxinoena izandako *Zeruko Argia*, kooperatiba berriak kazetari izena ARGIA laburtu zion. Orain arteko krisirik latzenari egin behar zioten aurre langileek, astekaria inprimatzeko papera erosteko dirurik ez eta krediturik ez ematen banku bakar batek. Gure historia buruan daraman Joxe Mari Ostolazak kontaturik dakigu dirua jartzeaz gain bankuen aurrean beren buruak berme jartzeko eskuzabaltasuna erakutsi zutenetakoa izan zela Santi Auzmendi, Hernanin denda txiki bat eduki ondo-



Gure historia buruan daraman Joxe Mari Ostolazak kontaturik dakigu dirua jartzeaz gain bankuen aurrean beren buruak berme jartzeko eskuzabaltasuna erakutsi zutenetakoa izan zela Santi Auzmendi

loa) gogoratuko ditu: zenbatak jartzen zuen iragarkirik euskaraz 1977an, Franco hil eta trantsizio beteanean, abertzaleek mundua jan behar, baina, gaztelaniaz –“joango gara euskara sartzen pixkanaka azkenean dena euskaraz egin arte” eta gaur arte–, subentzio publikoa kontzeptua asmatzeke, artean ez Autonomiarik eta ez Preautonomiarik (*Consejo General Vasco* 1980 aldean sortu zuten!), eskukada bat langile eta kolaboratzaile sutsu gehi irakurle fidelak eta publizitatez laguntzeko lau

ren Donostian ari zena arrakastaz, lagundu eta laguntzaile gehiago konpromisora erakartzeko prest. Gero Donostian eta Gipuzkoan tendentzia markatu zuen Auzmendik. Korrika ikusi izan dugu azken urteotan. Heriotzaren atarian, ingurukoei eskatu omen die despedidarik ez antolatzeko, ez bada sagardotegian ospatzea. Ongi irudituko zaio guk gintonic batez despeditzea gure aspaldiko laguntzailea. ■



BERTSO BERRIAK

Maialen Akizu

◆



Doinua: Ternuarat.

Ijitoa naiz

Nahiz eta guztiok garen tik-tak soinuaren testigu, guri “etorkizun” hitzak aspaldi aldegin digu. Ze garapen, kontsumismo, ze krisi eta ze diru? Hamar gara familian ez bat, ez bi ta ez hirur. Furgoneta kaxaz bete, ez logela ez altzairu. Su bat erdigune eta parrilan lau bat bixigu. Gitarraren askatasun ilargiaren gatibu edozein izkina gure etxe bihurtzen dakigu.

Gaur aitak hala esan dit: “hitze egin beharra daukagu, laster ezkonduko zara merezi bezain ondradu”. Txanpaina atera eta irrifartsu nahiz afaldu, salduta den gorputz baten bihotzak zentzurik al du? Ez nuke nahi ikasteko dudana gogoia itzalduta, biziak mundura sortu ta nire biziak galdu. Malko artean amonak besarkatuz dit azaldu: “Ahoa itxi behar duzu eta bi hankak zabaldu”.

Bikote polita egiten dugula dute berretsi eta zapiaren proba egingo didate etzi. “Heldu dira hamazazpi urteko Joan eta Jesi” orri idatzen aurkako borroka ez du merezi. Baina ez dut payo izan nahi nahiz eta askok ez sinetsi. Poz, alaitasun, musika artean naizenez hezi horrela segiko dugu hain bitxi ta hain berezi gure munduan bilduta munduarengandik ihesi. ■

Ikastolen Elkarteak antolatutako Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan sorta irabazlea.